

2015 EKA 1.1 (e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015 EKA JUN: 12

**DEBABARRENA MANKOMUNITATEKO HIRI
HONDAKINAK GARRAIATZEKO ETA
ELGOIBARKO ARRIAGA POLIGONOKO
TRANSFERENTZIA-ESTAZIOA KUDEATZEKO
ZERBITZUAREN
BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA**

2015 FKA 1.1

(e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015 EKA JUN: 12



Idazkariak

AURKIBIDEA

1	LEHIAKETAREN XEDEA.....	3
2	ZERBITZUAREN DESKRIPZIOA.....	3
3	DEBABARRENA MANKOMUNITATEKO HONDAKINAK GARRAIATZEKO ZERBITZUA. ESLEIPENDUNAK BETE BEHAR DITUEN BALDINTZA OROKORRAK	5
4	ZERBITZUA GAUZATZEKO UNEAN APLIKATZEKO BESTE FUNTZIONAMENDU ARAU BATZUK	12
4.1	BALIABIDE MATERIALAK	12
4.1.1	BITARTEKO MATERIALEN ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK	13
4.1.1.1	ZARATA MAILA	14
4.1.1.2	KARGAK ETA NEURRIAK	14
4.1.1.3	MOTORRA.....	14
4.1.1.4	LOZAGIA.....	15
4.1.1.5	TRAKZIOA	15
4.1.1.6	BALAZTA SISTEMA.....	15
4.1.1.7	DERRIGORREZKO BESTE BALDINTZA BATZUK.....	15
4.2	LANGILEAK	16
4.3	LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA	18
4.4	KONTROL SISTEMAK	19
5	DEBABARRENAKO BIDERAKETA-SAREKO GARRAIO ZERBITZUA EMATEKO ETA ELGOIBARKO TRANSFERENTZIA-ESTAZIOA USTIATZEKO MEMORIA TEKNIKOA	20

1 LEHIAKETAREN XEDEA

Baldintza-agiri honen xedea Debabarrena mankomunitatetik errefusa eta biohondakina deuseztatze eta tratamendu zentroetara garraiatzeko kontratazioaren alderdi teknikoak definitzea da. Deuseztatze eta tratamendu zentroak Lapatx (Azpeitia) eta Sasietan (Beasain) daude errefusari dagokionez, eta biohondakina tratatzeko plantak, berriz, Lapatx (Azpeitia), IB Reciclaje (Funes-Nafarroa), HTN (Caparroso-Nafarroa) eta Loreki (Itsasu-Frantzia) dira, GHK-k esleitzen dituen destino puntuen arabera. Enpresek egokitu egin beharko dute GHKren beharretara eta izan daitezkeen destino horietara, GHK-k adierazten dienaren arabera, honentzako kostu gehigarririk gabe.

Bergarako Epeleko Konpostatze Plantaren eraikuntza amaitzen denean, Elgoibar eta Arasoko transferentzia-estazioetako biohondakinaren destinoa izan ahal izango da, baldintza-agiri honetan deskribatzen diren baldintzei eragin gabe zein GHKrentzako kostu gehigarririk gabe, Debabarrena eta Txinguditik Epelerako (Bergara) garraioei dagokienez.

Lizitazio honek GHK-k Gipuzkoako Elgoibarko Arriaga poligonoan daukan transferentzia-estazioaren kudeaketa jasotzen du, halaber.

2 ZERBITZUAREN DESKRIPZIOA

Garraio zerbitzuak **gutxi gorabehera** ondoko tona kopuruak garraiatu beharko ditu, urtean:

ERREFUSA

- DEBABARRENA: 17.500 t

BIOHONDAKINA

- DEBABARRENA: 4.000 t

Guztira 21.500 tn inguru mugituko dira. Berariaz azpimarratzen da hondakin kantitateak orientagarriak direla. Beraz, kontratistak bere gain hartu behar du karga bolumen handiagoa edo txikiagoa izateak ekar diezaiokeen arriskua.

Hondakinaren sorburuak honakoak dira:

- Debabarrena Mankomunitatea:
 - GHK-k bere transferentzia-estazioa dauka Elgoibarren; honen ustiapena lehiaketa honetan jasotzen da halaber. Elgoibarko Arriaga poligonoan dago, eta transferentzia-estazio estali bat da, zoru mugikorrek kargatzeko toberaz hornitua, bai errefuserako bai biohondakinerako. Ekipamendu estatikoa eta funtzionamendurako oinarritzko materiala dauzka (baskula, kontrol eta pisatze kaseta, kamera sistema, aldagelak, zerbitzuak, barne eta kanpo argiteria sistema, koipe-bereizgailua, etab.).



Errefusarentzako destinoak honakoak izango dira:

- Lapatx zabortegia (Azpeitia)
- Sasieta zabortegia (Beasain)
- Une honetan aztergai dago Zubieta-Donostian errefusaren tratamendurako azpiegitura baten eraikuntza; hori dela eta, baliteke lizitazio honen ondorengo kontratuak irauten duen bitartean azpiegitura hori irekitzea eta, horren ondorioz, orain Elgoibarko Transferentzia Estazioan jasotzen den errefusa bertan jasotzea. Destino hori martxan jartzeak ez dio kostu edo kalteordain ekonomikorik ekarriko zerbitzuaren esleipendunari.

Biohondakinerako destino posibleak honakoak izango dira:

- IB Reciclaje konpostatze planta (Funes-Nafarroa).
- HTNren biogas planta (Caparroso-Nafarroa).
- LOREKI konpostatze planta (Itsasu-Frantzia).
- Lapatxeko konpostatze planta (Azpeitia).
- Epeleko konpostatze planta (Bergara).

Destinoko zabortegietako lan ordutegiak aldatu ahal izango dira kontratuan zehar, kontratuaren esleipendunarentzako inolako ordainik eragin gabe ordea; honakoak dira:

LAPATX: Astelehenetik ostiralera eta jaiegunetan, 05:00etatik 16:00ak arte.
Larunbatetan, 06:00etatik 12:00ak arte.
Igandeetan, 00:00etatik 08:00ak arte.

SASIETA: Astelehenetik larunbatera eta jaiegunetan, 00:00etatik 05:15 arte.
Igandeetan, 08:30etatik 11:30 arte.

Biohondakina tratatzeko plantetako lan ordutegiak astelehenetik igandera 07:00etatik 16:00ak bitartekoak izango dira. Gutxi gorabeherako ordutegi hori GHKren beharren eta honek planta horiekin ezartzen dituen akordioen mendean egongo da.

Ordutegi hori aldatu ahal izango da, kasu eta planta bakoitzerako, GHKren beharren arabera, baina horrek ez dio kontratuaren esleipendunari inolako ordainik eragingo, uneoro egokitu egin beharko baitu GHK-k ezartzen dituen destino eta ordutegietara.

Kontratistak berariaz onartzen du zabortegietako eta tratamendu plantetako lan ordutegiak aldatzetik etor daitezkeen gailak direla eta galdu-gordean jardutea. Horregatik ezingo du kontratuaren baldintza ekonomikoetan inolako aldaketarik planteatu, arrazoi horretan oinarrituta, ezta eskaintzan zehazten diren prezioetan inolako aldaketarik ere.

3 DEBABARRENA MANKOMUNITATEKO HONDAKINAK GARRAIATZEKO ZERBITZUA. ESLEIPENDUNAK BETE BEHAR DITUEN BALDINTZA OROKORRAK

GHK-k transferentzia-estazio bat dauka Elgoibarren, Arriaga poligonoan, eta lehiaketa honetan sartua da hori. Esleipendunak bere gain hartuko du horretako instalazio eta hornikuntza guztien ustiapen eta mantentze integrala. Planta hori langune operatiboa izango da Debabarreneko bideraketa-sarean garraio zerbitzu emateko, eta esleipendunak bere gain hartuko ditu ustiapenetik ondorioztatzen diren kostu ekonomiko guztiak (argindar eta ur kontsumoak, hainbat mantentze-lan, ikuskapenak, aseguruak, etab.).

Kontratistak, zerbitzua antolatzeko unean, bere eskaintzan aurreikusi egin beharko ditu beharrezko ibilgailuak, errefuserako erdi-atoi erdi-estankoen kopuruarekin eta biohondakinaren erabat estankoen kopuruarekin batera; izan ere ez ditu bodyak garraiatuko zabortegira, eta edukia zoru mugikorreko erdi-atoiak erabiliz garraiatu beharko du, hau da, tobera pean kargatzen den unitate mota hori erabili beharko du lanean.

Esleipendunak egiaztatu egin beharko du erabilgarri dituela honakoak:

- 4x4 trakzio-buruak, zabortegietan sartu behar duten errefuserako erdi-atoiak mugitzeko.
Biohondakinaren garraioaren kasuan, lizitatzailleak beste ibilgailu mota egokiago bat proposatu ahal izango du errepidez eta distantzia ertainetan zirkulatzeke, erregai kontsumo txikiagoa izatearren, nahiz 4x4 ez izan; dena den, mantendu egin beharko ditu Baldintza Teknikoen Agiri honetan ingurumen iraunkortasuna bermatzeko eskatzen diren ratio teknikoak.
- Lizitatzailleak bere gain hartzen du ibilgailu horiek aukeratzeko eta zerbitzura egokitzeko ardura.
- Zoru mugikorreko erdi-atoiak, GHK-k Debabarrena Mankomunitatean daukan eta lizitazio honetan sartzen den transferentzia-estaziorako egokiak, egindako sistema aukeraketa justifikatuz, eta azalduz horixe dela egokiena, garraiatu behar den zatiki bakoitzaren ezaugarri bereziak eta transferentzia-estazioaren eraikuntzaren ezaugarriak kontuan hartuta.
- Lizitatzailleak kontuan hartu beharko du 4x4 trakzio-buruak garaiagoak direla, eta horrek eragina izango duela lotzen zaion erdi-atoiaren guztirako garaieran ere. Gehienezko 4 metroko garaiera bat kalkulatu beharko du IATrekin eta toberen garaierarekin arazorik ez izateko, horiek ez ditzan ez ukitu ez jo. Horretarako, aztertu egingo du erdi-atoiaren fabrikatzaile edo karrozeriagileari garaiera egoki bereziren bat enkargatu egin behar ote zaion, eta bere kontura izango dira gertatzen diren akats edo aurreikuspen faltak.
- Kontratistak arreta berezia jarri beharko die Elgoibarko transferentzia-estazioaren diseinu, neurri eta ezaugarriei, horren ustiapena sartua baita lizitazio honetan. Horretarako, proposamen teknikoan justifikatu eta frogatu egin beharko du egindako ekipo aukeraketa egokia dela, transferentzia-estazio horretako toberen garaiera eta neurriak kontuan hartuta, betiere bermatuz erdi-

atoiak ongi zentratuta geratuko direla eta karga-lanak egoki egiteko bermezturuko direla. Dena den, lizitatzailleak Elgoibarko transferentzia-estazioarako beste zoru mugikor egoki batzuk proposatu ahal izango ditu, esleipendun ateraz gero planta horren ustiapena eskualdatzen zaionean. Edonola ere, proposatutako materiala jasotzeko epeen kalkulua frogatu beharko du.

Alderdi horiek kontuan ez hartzearen erantzukizuna esleipendunarena izango da. Horregatik, kontuan hartu beharko ditu erdi-atoiaren fabrikatzaileekin edo alokairu enpresekin harremanetan jartzeko unean, trakzio-ibilgailuak aukeratzeko momentuan bezalaxe.

Elgoibarko transferentzia-estazioa ustiatzeko eta garraio lana egiteko, kontratistak konpromisoa hartu beharko du zerbitzuan **gutxienez zoru mugikorrek 3 erdi-atoi jartzeko errefuserako, eta bere eskaintzan proposatzen dituen erreserbak gehitu beharko zaizkio horri. Era berean, kontratistak gutxienez 4x4ko trakzio-buru bat jarri beharko du, eskaintzen duen presentzia-erreserba iraunkorarekin batera, zerbitzuaren ohiko funtzionamendurako.**

Gauza bera biohondakina erdi-atoiaren garraiatzeari dagokionez, erabat estankoa diren bi unitate eskaini beharko baititu gutxienez.

Lizitatzailleak 4x4az bestelako trakzio-ibilgailuak proposatzen baditu biohondakina garraiatzeko, trakzio-buru espezifiko bat beharko da garraio horietarako, eta zehaztu egin beharko du hori nola ordezkatzeko den ibilgailuaren prebentzioko mantentze-lanak eta konpontze-lanak direnean.

Lizitatzailleak biohondakina garraiatzeko 4x4 ibilgailuekiko ezberdinak diren trakziodun ibilgailuak proposatzen baditu, garraio horientzat trakzio-buru zehatz bat eduki beharko du, eta ibilgailu horien prebentziozko mantenua eta zuzentzailea egiteko bere ordezkapena nola egingo duen zehaztu beharko du. Aurreikuspen berdina egin beharko du errefusaren garraiorako erabiliko duen trakzio-buruari dagokionez, matxura, prebentziozko mantenu edo zuzentzailea, e.a.-en suposturako.

Proposatzen den trakzio-unitate kopurua transferentzia-estazioan egongo da, horixe izango baitu operazio-gune eta ibilgailuen gordeleku, tobera azpian aldatuz joan ahal izatearren zatiki biei dagozkien erdi-atoiak bete ahala, eta erdi-atoi kopuru eskasa izateagatik transferentzia-estazioa ez gelditzea bermatzearen.

Baldintza-agiri honetan eskatzen den gutxienerako erdi-atoi kopurua alde batera utzita, lizitatzailleak unitate kopuru bat proposatu beharko du, lan fluxu etengabea bermatzeko eta erdi-atoi guztiak beteta daudela-eta kolapsorik gertatzea saihesteko. Horretarako aztertu egin beharko ditu destinoak eta denborak, joan-etorrikoak, toberako deskargen fluxu horretan eraginik ez izateko.

Esleipendunak bere gain hartu beharko ditu zerbitzuari atxikitako garraio bitarteko guztien zein transferentzia-estazioaren beraren bitartekoaren prebentzioko mantentze-lan, konpontze-lan eta ustiatze-lanen kostu guztiak, GHKrekin sinatutako kontratuaren indarraldian zehar.

Egindako aurreikuspenaren arabera, hasiera batean gutxienez hiru erdi-atoi erabiliko dira errefuserako, eta beste bi biohondakinerako. Aurreikuspen hori gutxi

gorabeherakoa da, eta lizitatzailerak kalkulatu beharko du beharren dimentsionatzea, zerbitzua bermatzera begira.

Gaur egun, Debabarrenak Elgoibarko transferentzia-estazioan deskargatzen ditu bai errefusa bai biohondakina. Urola Kosta eta Debagoiena mankomunitateek ere transferentzia-zentro horretara garraiatzen dute bere biohondakina. Egoera hori nabarmen aldatuko da Bergarako Epeleko konpostatze planta martxan jartzen denean, zeren eta azken bi mankomunitate horiek laga egingo baitiote Elgoibarko transferentzia-estaziora joateari.

Kalkulatzen denaren arabera, Epeleko konpostatze planta 2015eko uztaillean jarriko da martxan, gutxi gorabehera. Kasu horretan, logikoa den bezala jaitsi egingo da transferentzia-estazioan sartuko den biohondakin kopurua, eta beharrezko garraio ekipoak birdimentsionatu ahal izango dira (alokatutako ekipoak erabiltzeari utziz edo, bestela, errefusaren garraioa sendotzera bideratuz).

- ELGOIBARKO TRANSFERENTZIA-ESTAZIOAREN USTIAPENA:

Hondakinak garraiatzeko lan deskribatuaren osagarri, kontratistak ustiatu egin beharko du GHK-k Elgoibarko Arriaga poligonoan daukan transferentzia-estazioa.

Debabarrena Mankomunitateaz aparteko erabiltzaileei transferentzia-estazioan sartzeko baimena ematea GHKren eskumen eskusiboa izango da; beste erabiltzaileek galarazita dute sartzea eta hondakinak isurtzea. Kontratistak galarazita dauka isurketak egitea edo baimentzea, GHK-k berariaz eta idatziz emandako onespenik ezean.

Kontratista, zerbitzuan hasten den unetik, transferentzia-instalazioaren ustiatzaile bakarra izango da, eta honen kargu hartuko du kontratuaren iraupenean zehar. Eta bere gain hartuko ditu kontratu honen indarraldian zehar instalazio horrek sortzen dituen mantentze eta birjartze, hornidura, erregai, zaintza, BAParen aseguru klausulan deskribatutako aseguru, zerga, tasa eta bestelako gastu guztiak.

Transferentzia-estazioaren kudeaketan, **bakar-bakarrik GHKren ohar eta errekerimenduei erantzungo die, sekula ez mankomunitate edo erabiltzaile partikularrenei.**

Esleipendunak zerbitzua emateko beharrezko langileak edukiko ditu uneoro, Baldintza Teknikoen Agiri honetan eta aurkeztutako eskaintzan deskribatutako jarraibide eta zehaztapenen arabera.

Transferentzia-estazioa GHK-k ezartzen duen ordutegian egongo da zabalik, urteko 363 egunetan zehar; izan ere, abenduaren 24ko eta 31ko gauetan itxita egongo da.

Ordutegi aurreikuspenaren arabera, **23:00etatik 06:00ak arte egongo da zabalik, gaueko ordutegian, astelehenetik igandera, eta 10:00etatik 15:00ak arte, eguneko ordutegian**, astelehenetik larunbatera; dena den GHK-k aldaketak ezarri ahal izango ditu, beretzako kostu osagarriak eragin gabe inolaz ere.

Hernani, 2015 EKA. 2
Debabarrenako hiri hondakinak garraiatzeko zerbitzuzako kontratua

GHK
Gipuzkoako
Hondakinen
Kudeaketa

Idazkaria

Sarrerak eta baskulako pisatzeak kontrolatzeko sistema bat eduki behar da, eta baskularako langileak esleituta; sistema horrek gutxienez erreferentziako ordutegia estaliko du, edo bere garaian GHK-k ezartzen duena bestela.

Kontratatik, bere eskaintzan, baskulako langileak esleitu eta horiek antolatze modua proposatuko du (pertsona kopurua, lan ordutegiak, etab.). Era berean, transferentzia-estazio hori kudeatzeko esleitu beharreko pertsona kopurua proposatuko du, garraio lanetarako kopuruarekin batera, **kontuan harturik bai langile subrogatuak** bai errefortzu gisa proposatzen dituenak; azken hauek inoiz ez dira zerbitzuko langile propiotzat hartuko eta, beraz, etorkizunean ez dira subrogagarritzat hartuko. Hau da:

Langile beharrak dimentsionatzeko, lehiaketa honetan subrogatuta daudenak hartuko dira kontuan. Kontratua esleitu ondoren, ustiatzaileak ezingo du handitu lizitazio honi lotutako langile kopurua, GHKren zuzendaritzak aurrez eta idatziz emandako baimenik izan ezean.

Transferentzia-estazioa zabalik dagoen guztietan, gutxienez pertsona bat izango da, behar besteko gaitasun eta prestakuntza baduen bat, baskula kudeatzeko eta sarrerak kontrolatzeko. Baskulako langileak kamioirako gidabaimena edukiko du, eta erdi-atoiak maneiatzeko trebatuta eta gaituta egongo da, hain zuzen beteta daudenak tobera azpitik ateratzen joatearren, eta horien tokian hutsak jartzearren, beste kamioiak zabortegirako bidean edo transferentzia-estaziotik kanpo daudenean, plantaren jarduera-orduetan zehar hondakina deskargatu nahi duten erabiltzaileen jardueran eragin kaltegarririk ez izatearren.

Inoiz ez da baimenduko erabiltzailerik sartzea GHK-k ezarritako ordutegitik kanpo. Ordutegiz kanpo, kontratatik hobekuntza gisa proposatu ahal izango du besteak beste instalazioak zaintzeko eta mantentzeko pertsona batzuk izatea.

Kontratatikaren ardura izango da transferentzia-estazioaren eta toberako isurketen kontrol eraginkorra; isurketa horiek pisatu eta kontrolatu egin beharko dira, identifikatu eta GHK-k baimendutako erabiltzaile zerrendarekin kontratatuta, GHK baita transferentzia-estazioan hondakina isurtzeko baimenak eman ditzakeen bakarra.

Kontratatik inoiz ez du isuriko, edo inoiz ez du baimendu gabeko isurketarik onartuko. Horrelakorik gertatuz gero, GHK-k ezartzen dituen zigorrak izango ditu, oso hutsegite larria baita. GHK-k erabiltzaileei fakturatuko dizkie egiten dituzten isurketak. Horrenbestez, GHKren zerbitzu teknikoei egunero eman beharko die informazioa esleipendunak, izan diren sarrerak, isurketak, tona kopuruak, hondakinen titularitatea, plantan sartu den ibilgailua eta GHK-k behar edo ezartzen dituen bestelako datu edo informazio formatuak sartuz horretan.

Sarrerak eta pisuak kontrolatzeko sistema pisatze bikoitzekoa izango da, derrigorrean, hau da, kamioia deskargatu aurretik pisatuko da, sartzen denean, eta ondoren, irten aurretik, berriro pisatuko da, pisu maximoaren eta tararen arteko aldea atera eta pisu garbia zehazteko. Horrela erabiltzaileari, ustiapen enpresari eta GHKri bermatu egiten zaie pisuak errealtateari egokitzen zaizkiola, modu denontzat fidagarri batez, eta irmo bihurtzen dira jardueraren ondorioz egiten diren fakturazioak.

Erabiltzailea atenditzeko ordutegitik kanpo, funtzionamendu eta zaintza proposamen bat egingo du kontratatik, instalazioen segurtasuna bermatzeko, inor sar ez dadin kontrolik gabeko isurketak egitera edota instalazioetan lapurretarik izatea saihesteko; eta proposamen hori GHKri aurkeztu beharko dio kontratatik, lehiaketa honetan aurkeztu behar duen eskaintzan. Kontratatikaren kontura eta kargura izango dira, eta

kontratistaren erantzukizuna halaber, hirugarren batzuek transferentzia-estazioan zein beronen instalazioetan zertzen dituzten lapurreta edo bestelako ekintza batzuek eragiten dituzten kalteak.

GHK enpresak emakidadunaren esku jarriko ditu Elgoibarko transferentzia-estazioan sartzen diren instalazioak; funtsean honakoak dira:

1. Sarrerako hesiak/ateak.
2. Maniobretarako zabalgunea.
3. Baskula. Transferentzia-estazioak 60 t arte pisatzeko gaitasuna duen baskula bat dauka.
4. Kasu bakoitzean, esleipendunak pisatu eta datua erregistratu beharko du, derrigorrean, erabiltzaileen sarreraren kasuan, Mankomunitatearen jabetzako kamioiak diren ala ez alde batean utzita; era berean, kontrol eta erregistro lana egingo du erdi-atoia daramaten eta hondakinez kargatuta zabortegetara doazen bere kamioien irteera bakoitzean ere.
5. Kaxa elektriko orokorra.
6. Sute kontrako sistema.
7. Kargako toberak.
8. Deskarga- eta karga-hobia ixteko ateak, beheko plataforman.
9. Biltegia.
10. Komunetarako eta bulegorako lokalak.
11. Ur- eta argindar-kontagailuak.
12. Instalazio elektrikoa eta barne eta kanpo argiztapenekoa.
13. Barne urbanizazioa. Lorategia.
14. Saneamenduak eta koipe-bereizgailua.
15. Garbitoki ingurua.
16. Bideo-zaintzako sistema.
17. Estalkipeko transferentzia-eremua (esleipendunaren ardura izango da estalki eta egitura hori garbitzea eta mantentzea).

Lizitatzailerak plantako dependentzietan egin nahi dituen erreformak GHK enpresari aurkeztuko zaizkio, onarpena eman diezaien, eta onarpen hori badenean esleipendunaren kontura egingo dira, gehienez ere hiru hilabeteko epean. Eskaintzan jasota baldin badaude, GHK-k onartutako erreforma horiek egiteko gehienezko hiru hilabeteko epea esleipendunarekin kontratua sinatzen denetik hasita kontatuko da.

Saneamendu sistema besteak beste sor daitezkeen lixibiatuak bideratzeko dago pentsatuta. Kontratista esleipendunak kontrolatu egin beharko du lixibiatuaren eta koipe-bereizgailuaren hobian metatutako likidoen maila, aldi behin enpresa baimendu batekin hori hustea kudeatzearen eta, horrela, plantaren saneamendua behar bezalako egoeran mantentzea bermatzearen. **Gutxienez urtean behin garbituko da eta GHK-ko zerbitzu teknikoei egin izanaren justifikantea eman beharko zaie.**

Esleipendunak bermatu egin beharko du sarrerak kontrolatzeko sistema, GHK-k finkatua, erabiltzea edo, bestela, berak proposatu eta eskaintzan jasotakoren bat erabiltzea; sistemak, betiere, aukera eman beharko du honakootarako:

- Zerbitzu mankomunatuak erabiltzeko modukoa izan behar du, GHK-k ezarritako ordutegira mugatutako sarreraz betiere, zehatz kontrolatuz sartzen diren pertsonak eta ibilgailuak, GHKren zerbitzu teknikoek aurrez emandako

baimenen arabera, Prebentzio, Laneko Segurtasun eta Larrialdien arloko arauak betetzeko. Pertsona eta ibilgailu zerrendak egingo dira, eta GHK-k horiek eman eta eguneratuko ditu, esleipendunak jakin dezan nor dagoen plantan sartzeko baimenduta eta, horrenbestez, aipatutako identifikazioak egiaztatu ditzan (Prebentzioaren arloko enpresa-jardueren koordinazioa Elgoibarko transferentzia-estazioa ustiatzen duenaren kontura izango da, eta GHK informatuta mantendu beharko du).

- Sistemak pisatze ticketa emango du, **beti** (autokopiagarria edo bi kopiaz, erabiltzailearentzat bata eta GHKrentzat bestea); horretarako, emakidadunak aurreikusi egin beharko du papera eta tinta-kartutxoak birjartzea.
- Sistemak barne memoria batean erregistratuko ditu egindako pisatzeak, hain zuzen zerrendak atera eta datuak sistema informatiko batean irauli ahal izan daitezten. Esleipendunak egunero informazioa emango dio GHKri, sartu eta irten diren hondakin tonei eta plantan ibili diren ibilgailu eta erabiltzaileei dagokienez.

Pisatze baskulen kalibrazioak, horietan egin behar diren mantentze-lanekin batera, plantaren zerbitzu ordutegitik kanpo egin beharko dira. Lan hauetatik ondorioztatzen diren gastuak esleipendunaren kargura izango dira.

Urtean kalibrazio bat egingo da, derrigorrean, eta lana egin duen enpresak - horretarako homologatuta egon beharko du- emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da. Epeak hamabi hilabetekoak izango dira, eta baskula instalatu eta lanerako moduan jarri den datatik hasiko dira kontatzen.

GHK-k erabakitzen badu egungo instalazio finkoak handitzea, edo beste berri batzuk eraikitzen baditu, esleipendunak bete egin beharko ditu ezartzen diren jarraibide berriak, baina horrek ez du ekarriko tonako kanonean inolako aldaketarik aplikatzea. Instalazio berri horiek GHK-k ordainduko ditu, bere borondatez eginak baitira.

GHK-k baimena eman ahal izango dio, berak egoki deritzonari, plantan sartu eta hondakinak isurtzeko. Plantan bideratzen den hondakin fluxuaren gorakada gertatzen bada, eta bitarteko mugikorak, bai kamioiak bai erdi-atoiak, eta pertsonal esleituak eskas geratzen badira transferentzia-estazioan eman beharreko zerbitzua behar bermez gauzatzeko, esleipendunak bere eskaintzan konpromisoa hartu behar du bitarteko tekniko eta giza baliabide gehiago jartzeko, sortzen diren beharretara egokitzearren zerbitzuak.

Horrelakoetan, GHK-k tona garraiatuko ordaindu beharko duen prezioa ez da igoko, eta garraiatu eta fakturatu behar den hondakin kopuruaren gorakadaz konpentsatuko ditu gastuak esleipendunak. Esleipendunak, garraiatu beharreko hondakina murrizten bada, onartu egingo du egoera hori, GHKri kalte-ordainik edo gailenturik erreklamatzeko eskubiderik gabe.

Zabortegetako eta destinoko tratamendu plantetako erreferentziazko datuen arabera ordainduko dio GHK-k esleipendunari. Baskulen barne kontrolak sarrera/irteera kontrastea ikuskatzeko balioko du, eta ondoren GHK-k datuak alderatu egin ahal izango ditu zabortegetatik eta tratamendu plantetik emandakoekin. Horretarako, esleipendunak erantsi egingo ditu deskarga bakoitzean zabortegetatik ematen dituzten ticketak, bere zerbitzuengatik GHKri jaulkitako fakturarekin batera, hileroko.

GHK-k ez du inolako konpromisorik izango esleipendunak emakidan zehar erabiltzen dituen lokalen gainean, ezta emakida suntsiarazte edo iraungitze kasuan ere; salbuespena izango dira edozein unetan GHKren jabetzakoak diren lokalak.

Elgoibarko transferentzia-estazioko instalazio finkoak osatzen dituzten elementu guztiak kontserbazio eta garbitasun egoera akasgabea mantendu beharko ditu esleipendunak, gutxienez honako lanak eginez horretarako:

- Dependentsia guztiak garbitzea.
- Dependentsia horiek desinfektatzea eta horietan arratoiak hiltzea.
- Eraikin guztiak pintatzea, barnealdetik edo kanpoaldetik, kontratuak aurrera egin ahal, gertatzen den narriaduraren arabera. GHK-k mantentze-lan horiek eskatu ahal izango ditu, konpondu gabeko gabeziak edo kalteak detektatuz gero. Esleipendunak, hilabeteko epean, pintatu horiek bere gain hartu beharko ditu.
- GHKren jabetzako edozein elementu berehala birjartzea.
- Lorategiko aldian aldiko mantentze-lanak. Gai honetarako mantentze-plan bat proposatuko da eskaintzan.
- Arauzko ikuskapenak eta instalazio elektrikoa mantentzea (tentsio ertaina eta behe tentsioa, hala badagokio), barneko zein kanpoko instalazio elektriko osoa bezalaxe, esaterako argiztapena, etab.
- **Plantan lanean hasi eta lehen hilabetea, transferentzia-estazioaren mantentze-lanetarako plan nagusi bat aurkeztuko du esleipendunak, GHK-k onar dezan.**
- Teilatuak, erretenak, zorrotenak eta abar garbitzea.
- Koipeak bereizteko hobia/bereizgailua eta, oro har, saneamendu sistema osoa garbitzea. Esleipendunak bere gain hartuko ditu garbiketa horien kudeaketako eta kudeatzaile baimendu batek horiei azken tratamendua emateko kostuak.
- Laneko Arriskuen Prebentzioko eskakizun eta beharrak direla eta lantokian ezarri behar izan diren elementuen mantentze egokia zertzea.
- Eguraldi baldintza txarretan ere (elurteak eta abar) ziurtatzea ibilgailu astunek hiri hondakinak deskargatzeko kalapatxetarako sarrera izatea. Sarrera bermatuko du elurra edo beste eragozpen batzuk direnean, kalapatxetarako sarrerako atera iristeko bidearen hasieratik, Arriaga poligonoaren beheko zonan dago, aipatu kapalatxetarako.

Mantentze-lanetarako plan batean, lizitatzailerek definitu egin behar dituzte egitea proposatzen dituzten lanak, horietarako bitartekoekin eta maiztasunekin batera.

Esleipendunak GHKren jabetzako instalazio finkoak mantentzeko duen obligazioa beteko dela bermatzearen, emakidaren iraupeneko azken sei hilabetea zehar instalazio horiei GHK-k egoki deritzon interbentzio teknikoa aplikatuko zaie, eta esleipendunak, azken sei hilabete horretan eta erabat bere kargura, beharrezko konponketak eta birjartze-lanak egin beharko ditu.

Kontratua iraungitzean edo suntsiaraztean, GHKra itzuli behar duten instalazio guztiak kontserbazio egoera akasgabea egongo dira, eta karga zein zamarik gabe.

GHK-k egiten duen kontrolaz gain, plantako instalazio finkoen zaintza esleipendunaren erantzukizuna izango da, eta instalazioen erabateko segurtasuna modu iraunkorrean ziurtatzeko beharrezko elementuak jarri beharko ditu. Horretarako, laneko ordutegian zein honetatik kanpo segurtasun hori bermatzeko funtzionamendu/lan sistema egokia proposatuko du.

Enpresa esleipendunak bakar-bakarrik baldintza-agiri honen xede diren zerbitzuetarako erabili beharko ditu lokalak eta instalazioak. Hau da, ezingo ditu, inolaz

ere, zerbitzu honetatik kanpo dauden beste eginkizun edo lan partikular batzuetarako erabili, direnak direla. Salbuespena izango dira GHK-k agintzen dizkion eta apartekoak diren zerbitzuak.

4 ZERBITZUA GAUZATZEKO UNEAN APLIKATZEKO BESTE FUNTZIONAMENDU ARAU BATZUK

Bidalketak destinoko zabortegi eta plantek dituzten ordutegietara egokitu beharrak ezarriko du garraio maiztasuna; horiek egunekoak edo gauekoak izan daitezke, eta esleipendunak aukera izango du urteko 365 egunetan zehar bidaiak egiteko, lehiaketan eskainitako prezioarekiko aldaketarik izan gabe garraiatutako tonako prezioan.

Destinoko zabortegi eta plantetako deskargan, destinoko zentroetako bakoitzean ezarritako jarraibide eta arauak bete beharko dira derrigorrean. Arau, ordutegi edota egutegi horiek aldatzen badira, kontratistak zertzelada horietara egokitu beharko ditu bere lanak, zerbitzua behar bezala betetzearren; eta bere kargura izango dira aldaketa horiek eragiten dituzten kostuak, horrelakorik sortzen bada behintzat.

Zerbitzu beharrak direla-eta hondakinak deuseztatzeko beste puntu batzuk izendatu ahal izango ditu GHK-k, edo hasieran aurreikusitakoak aldatu, garraiatutako tonaren prezioa aldatzeko aukeraz, kilometrajea sortzen diren aldaketen arabera; era berean, egin beharreko bidea murrizten bada aldaketa horien eraginez, GHK-k zerbitzuaren prezioa jaitsi ahal izango du, proportzio irizpide berari jarraiki.

4.1 BALIABIDE MATERIALAK

Esleipendunak beharrezko material guztiak jarri beharko ditu, zerbitzua behar bezala ematearren.

Zerbitzua ematera bideratutako baliabide materialek uneoro ziurtatuko dute zerbitzu prestazioa, laneko plana puntualtasunez betetzeko eta sortzen diren ustekabeak bideratzeko behar besteko marjinaz.

Lizitatzailleek, egiten dituzten eskaintzetan, adierazi egingo dute zer material mugikor erabiliko duten zerbitzuetan, argi eta garbi azalduz zer jotzen duten beharrezko material, zerbitzuak behar bezala emateko, eta zer jotzen duten erreserbako material, hau da, normalean zerbitzuan ez badago ere zerbitzurako izango dena bai matxuraren bat gertatzen denean, bai noizbehinka zerbitzua sendotu beharra dagoenean.

Erabiltzeko material mugikorra zerbitzuaren eskakizunetarako egokiena izango da.

Zerbitzurako material guztia deskribatu beharko dute lizitatzailleek, horren gaineko ezagutzarik sakonena izatearren beharrezko irizitako datu guztiak eman ez horretarako.

Debabarrenako hiri hondakinak garraiatzeko zerbitzurako kontratua



dazkariak

Esleipendunak bete egin beharko du zerbitzu hauetara bideratzen den material guztiaren prebentziozko mantentze-plana; honetan adierazten dira koipeztatze azterketa, aldian aldiko egin beharreko eta abarrei buruzkoak.

Industriako Lurralde Zuzendaritzaren aldian aldiko azterketa igaro behar duten ibilgailu automobil guztiek, arinek zein astunek, indarrean dagoen araudiaren arabera egingo dute azterketa hori.

Lehiaketa honen xede den kontratuan sartutako material guztia kontratatzen diren zerbitzuetarako **erabilera eskusibokoa** izango da, eta ezingo da emakidatik kanpoko zerbitzuetan erabili, GHK-k berariaz emandako agindu edo onespenik ezean. Materialak eta baliabide teknikoak eta giza bitartekoak era berean aritu ahal izango dira GHK-k Debabarrenarako kontratatutako zerbitzuan.

Esleipendunaren obligazioa izango da dagoen ibilgailu-flota osoa uneoro zerbitzurako egoera onenean egoteko beharrezko kontserbazio, mantentze- eta konpontze-lanak antolatzea eta egitea.

Ibilgailuak garbitasun eta higiene baldintza akasgabeetan mantenduko dira. BIOHONDAKINA garraiatzera bideratutako zoru mugikorrek erdi-atoiak **destinoko plantan garbitu beharko dira deskarga bat egiten duen bakoitzean**; eta GHK-k ematen duen dokumentu-frogagiria bete beharko da, berak ezartzen duen prozedurari jarraiki. **Biohondakin deskarga bakoitzaren ondoko garbiketa derrigorrezkoa da.**

Erdi-atoiaren garbiketarekin lotutako dokumentua destinoko zentroak ematen duen frogagiri-tiketari erantsiko zaio -honetan entregaren datuak jasotzen dira, hala nola tona kopurua, kamioiaren matrikula etab.-, eta GHKri emango zaizkio, hileko fakturarekin batera.

Hiri hondakinak, bai errefusa bai biohondakina, garraiatzeko erdi-atoiak estankotasun-maila akasgabea bermatu beharko dute, garraioan zehar lixibiatu galerarik izan ez dadin. Esleipendunak bermatu egin behar du estankotasun hori, ekipo egokiak aukeratuz eta mantentze-lan egokiak eginez, eta bere kontura izango dira agintari eskumendunek, ingurumen eta trafikoaren arlokoek besteak beste, ezartzen dizkieten zigorrak. Eta esleipendunak bere gain hartu beharko ditu, halaber, zigor horien ondorio ekonomikoak, erantzukizun zibila edo ingurumen erantzukizuna.

Materialaren kudeaketa tekniko zein ekonomikoa kontratistaren ardura izango da.

Lizitazailleek, bere eskaintzetan, xehetasunik handienez adierazi beharko dituzte ekipo mugikorretarako proposatzen dituzten mantentze-lanak, hauen irismen eta maiztasunarekin batera.

4.1.1 BITARTEKO MATERIALEN ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

Proposamen eta eskaintzek bete egin beharko dituzte ondoko zehaztapen teknikoak, DERRIGORREZKOAK baitira, eta lizitazaillearen eskaintzan horiek EZ BETETZEA ETA SARTZEA lehiaketatik KANPO geratzeko arrazoia izango da.

OHAR GARRANTZITSUA: Esleipenaren emaitza lizitatzailerak jakinaraz dakiekeen datatik, eta kontratua sinatzen den datatik, GHK-k **2015eko abenduaren 15ra arteko** marjina emango du eskaintzen diren ekipoak sartzeko, hain zuzen ere etxe komertzialek astia izan dezaten materiala esleipendunari entregatu ahal izateko. Bitartean, esleipendunak egoki deritzen behin-behineko ekipoak erabiliz erantzun ahal izango dio zerbitzuari, nahiz horiek ez bete zehatz-mehatz lehiaketaren baldintzak; baina horrela diharduenean bere ardurapean ariko da erabat, zerbitzuak ez dezan afekzio kaltegarriarik izan. GHK-k onartzen duen behin-behinekotasun hori aipatutako **2015eko abenduaren 15ean** amaituko da, esleipendunak, egun horretarako, eskaintako ekipamendu guztia eduki beharko baitu jada. Epemuga horren ez-betetzeak, esleipendunak bere eskaintzan eskaintako ekipo guztiak gehitzeko, ekarriko du 500€/eguneko isuna GHK-ren partetik, 2015eko abenduaren 15eko datatik aurrerako fakturetatik deskontatuko direnak.

4.1.1.1 ZARATA MAILA

- Ibilgailuaren dokumentazio teknikoa erantsi behar da, indarrean dagoen Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean zarata-emisioari dagokionez jasotzen den araudia betetzen duela frogatzen duena.

Datu horiek txosten baten bidez abalatu beharko dira. Txosten horretan -kasuan kasuko garraiobidearen markako **Kontzesionario Ofizial** batek eman beharko du propio egindako neurketa teknikoak jasoko dira, beharrezko homologazioekin batera.

4.1.1.2 KARGAK ETA NEURRIAK

Garraioei dagozkien kargak eta neurriak bete egin beharko dute Bide Segurtasun, Trafiko, Industria eta Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloko arauak dagokienez indarrean dagoen legedia. Debararrenaren kasuan, kontuan hartuko da erdi-atoiek 4x4 bati lotuta daudenean hartzen duten garaiera, toberekiko hartzen duten garaierarekin batera, hain zuzen hauek libratu ahal izateko; eta multzo osoak har dezakeen gehienezko garaiera ere kontuan hartuko da (4 metro), IATarekin arazorik ez dadin izan. Horregatik, lizitatzailerak kasuak aztertuko ditu, ikustearren erdi-atoiaren kaxaren beraren garaiera zerbait jaitsi behar den, 4x4 bati lotuta dagoenean deskargako toberen garaiera zein onartzen den gehienezko lau metroko garaiera errespetatzearen.

4.1.1.3 MOTORRA

Ibilgailuaren fitxa teknikoa, ibilgailuaren hainbat ezaugarri ziurtatzearen, honakoak:

- Diesela.
- Gutxieneko potentzia: 420 ZP
- Gutxieneko indar momentua: 1800 Nm
- **EURO V araudia** betetzea. Hau derrigorrezkoa izango da zoru mugikorrek erdi-atoiaren trakzio-buruen kasuan. Txingudiko zurrin kakodunen kasuan ere derrigorrezkoa izango da **EURO V** bat.
- Lastertasun-mugatzailea

4.1.1.4 LOZAGIA

Ibilgailuaren lozagia aldagailu erdiautomatikoduna delako ziurtagiria.

4.1.1.5 TRAKZIOA

- Debabarrenan behar diren errefuserako erdi-atoiak eramateko trakzio-buruetarako **4x4 ibilgailuak** eskaini behar dira, destinoa izan daitezkeen zabortegietako edozeinetara arazorik gabe iritsi ahal izateko. Isurketa-puntuari deskarga egiteko arduraduna gidaria izango da, eta ekipoen fabrikatzaileak emandako jarraibide teknikoak eta maneiukoak segitu beharko ditu.
- Biohondakina duten erdi-atoiak garraiatzeko, 4x4 EZ den ibilgailu bat proposatu ahal izango du esleipendunak; izan ere distantzia luzeko bidaiak egingo ditu errepidean, eta ez da sartuko esaterako zabortegietakoak bezalako lur malkartsuetan. Txingudiren kasuan ere onartuko da ibilgailuaren bat 6x4 EZ izatea, bakar-bakarrik biohondakinaren garraioan erabiltzeko.

4.1.1.6 BALAZTA SISTEMA

Ziurtatu egin behar da ibilgailuak badituela honakoak:

- Retarder/intarder balazta edo antzekoa
- ABS sistema.
- Aurrekoak; disko aireztatuak edo antzekoak.
- Atzekoak; disko aireztatuak edo antzekoak.

4.1.1.7 DERRIGORREZKO BESTE BALDINTZA BATZUK

- Zuriz pintatutako kabina/ibilgailua, **"Gipuzkoako hondakinak"** logotipoa duena gidariaren eta kopilotuaren ateetan, ate osoa hartuz horrek (logoa GHK-k berak jarriko du, eta kostua esleipendunaren kontura izango da).
- **Onartuko da bigarren eskuko garraiobideak, trakziokoak zein arrastekoak, proposatzea lizitatzailerak. Lizitazio honetan onartuko den gehienezko antzintasuna 6 urtekoa izango da, proposatzen diren ekipo guztien kasuan.**
Eskaintzan, proposatzen den garraiobide bakoitzaren egiaztatze dokumentazio osoa erantsiko da, proposatzen den ekipoaren antzintasuna modu sinesgarri batez justifikatzearen.
- Klimatizagailua, berokuntza, aireztapena eta lurrun-kontrakoa
- Inklinazio erregulagarriko bolantea
- Gidariaren eserleku pneumatikoa
- Sartzeko hiruko maila, ez labaingarria eta argiztatua
- Faro birakari homologatua
- Seinaleztapeneko triangeluak
- Takografoa
- Aginte-taulan txertatutako hodometroa

Hernani,

2015 EKA. 12



Idazkeriak

- Maila-adierazleak
- Altxagarriak
- Beira-jasogailu elektrikoak
- Itxitura zentralizatua
- Sartze-kontrako kita
- Lanabes ontzia
- Atzerako ispilu elektrikoak eta termikoak
- Bertikaleko ihes-hodi isilgailuduna
- Indar-harguneak abiadura-kaxatik edo banagailutik irten beharko du
- Koipeztatze automatiko eta zentralizatua
- Pisatze sistemaren aurreinstalazioa eta atzera-martxako kamera
- Deflektore integratuak
- Atoirako kakoa, atoaia lotzeko beharrezko instalazio elektriko, hidrauliko eta bestelakoekin batera.
- Ikusgarritasun handiko txalekoa gidariarentzat eta, hala dagokionean, laguntzailearentzat.
- Debabarrenaren kasuan, errefusa edota biohondakina garraiatzeko zoru mugikorrak proposatzen diren unean, kontuan hartu beharko da ekipoak zoru mugikorra aktibatzeke sistema autonomorik daukan, edo Elgoibarko transferentzia-estazioan zentral hidrauliko finko bat behar duen karga sistema aktibatzeke. Aukeratzen den ekipoaren eta plantan erabiltzeko aukeren arabera, lizitatzailerak aztertu egin beharko du proposatzen dituen zoru mugikorrak aktibatzeke baliabide mekaniko hori sartzeko aukera.

4.2 LANGILEAK

Esleipendunak bere gain hartu beharko du zerbitzuari atxikita dagoen eta berori arautzen duten Baldintza Administrazioen Agirian jasota dauden langileak subrogatzeko obligazioa.

Subrogatu behar diren langileak 2015eko uztailaren 17an epemugara iristen den kontratuaren esleipendunak une honetan kontratatuta dituenak dira. Eranskin gisa doaz Elgoibarko transferentzia-estazioko garraio eta ustiapen zerbitzuari atxikita dauden langileen lan baldintzak.

Esleipendunak uneoro edukiko ditu zerbitzua emateko beharrezko langileak, eta osagarriak hala dagokionean, Baldintza Teknikoen Agiri honetan eta aurkeztutako eskaintzan deskribatutako jarraibide eta zehaztapenen arabera.

Esleipendunak beharrezko giza baliabideak eduki beharko ditu, uneoro ziurtatzearen bai kontratuaren xede den zerbitzua behar bezala ematea, eta baita gaixotasun edo istripuagatik baxak, baimenak, lan sindikalak, oporrak eta beste hainbat arrazoi tarteko sor daitezkeen gorabeherak, ustekabeko baja mota guztiak eta absentismoa barne, estaltzea ere. Langileen absentzia edo baja horiek berehala estali beharko ditu esleipendunak. Horien estaldurarako, lanpostuari dagozkion kualifikazioa eta eskarmentua badituzten langileak erabiliko dira.

Aurrekoari jarraiki, kontratatutako zerbitzuak egoki eman ahal izateko beharrezko langileei buruzko aurreikuspen proposamen bat aurkeztu beharko dute bere proposamenetan lizitatzailerek, langileak ordezkatzeko plan batekin batera.

Zerbitzuan buru, eta arduradun nagusi gisa, KONTRATUAREN ORDEZKARIA egongo da, kontrataren alderdi guztietan erabakiak hartzeko behar besteko ahalmena duen pertsona, eta bera izango da **mankomunitate bietarako garraio zerbitzua eta Elgoibarko Arriaga poligonoko transferentzia-estazioaren ustiapena antolatzeko eta ikuskatzeko arduraduna**. KONTRATUAREN ORDEZKARIAK telefono mugikorra edukiko du, eta harreman zuzenak izango ditu GHKren zerbitzu teknikoekin; horretaz gain, ibilgailua edukiko du, lanen kontrol eta zaintza eginkizunak ahalbidetzarren. Eta falta denean ere (oporrak, bajak, bidaiak etab.) ordezkaria izango da, hain zuzen uneoro egon dadin kontratatutako lanak koordinatzeko eta kontrolatzeko arduradun tekniko bat.

Enpresak ezingo du ORDEZKARIA beste pertsona batez ordezkatu, bere enpresa-erakundean beste eginkizun edo erantzukizun batzuk aldi baterako edo behin betiko emateko asmoz, GHKren zerbitzu teknikoak aurrez eta idatziz emandako onespenik ez badu.

ORDEZKARIAREN garrantzia dela eta, GHK-k beretzat gordeko du enpresa esleipendunak lanpostu hori betetzeko izendatzen duen pertsona onartzeko edo ez onartzeko eskubidea; eta pertsona hori berehala ordezkatzeari eskatu ahal izango du, uste badu duen kualifikazioa, eskarmentua edo lan egina ez datozela bat bete behar duen lanpostuko erantzukizun eta helburuekin. Azken kasu honetan, kontratatutako pertsona hori ordezkatu beharko du, gehienez ere hilabeteko epean, jakinarazpena egiten zaionetik kontatzen hasita; eta horrek ez du esleipen prezioan inolako aldaketarik eragingo.

ORDEZKARIA, eta enpresaren zuzendaritzaren ordezkariak, GHK-k deitzen dituen bilera eta lantsaio guztietara joango dira.

Lizitatzailerek zehaztasun osoz jasoko dute bere eskaintzetan zerbitzu honetako lanak, eginkizunak eta ardurak egoki eramateko behar den lantalde administratibo osoa.

Era berean, lizitatzailerek organigrama hierarkiko-funtzional bat aurkeztu beharko dute, horretan argi eta garbi azalduta apartatu honek jasotzen dituen giza bitartekoen erantzukizun mailak.

GHK-k ez du inolako harreman juridikorik, lan arlokorik edo bestelakorik enpresa esleipendunaren pertsonalarekin, ez kontratuaren indarraldian zehar ez indarraldia amaitu ondoren ere. Enpresa esleipendunaren kontura izango dira kontratu hau iraungitzen denean sortzen diren obligazio, kalte-ordain eta erantzukizun guztiak.

Enpresa esleipendunak bete egin beharko ditu Gizarte Segurantzaren, lan istripuen eta PFEZren arloko laneko obligazio guztiak.

Enpresa esleipenduneari greba edo lan gatazka izanez gero, GHK-k eskatuko du GHKren eta esleipendunaren artean hitzartutako gutxieneko zerbitzuak betetzea, betiere eskumena duen lan arloko agintaritzak onartzen baditu. Enpresa esleipendunak ez baditu zerbitzu horiek betetzen, GHK-k zigortu egin ahal izango du esleipenduna, arau-hausteen araubideari jarraiki; are gehiago, GHK-k beretzat gordeko du esleipendunarekiko kontratuaren indarraldia ez-betetze larri batengatik amaitutzat emateko eskubidea, eta zerbitzuak beste enpresa batzuekin kontratatatu ahal izango

ditu, kontratuaren arrazoa den zaborren garraio eta banaketa zerbitzua bermatzearren.

Arrazoi teknikoak edo langileekiko arazoak direla eta esleipendunak zailtasunak baldin baditu esleitutako zerbitzuak betetzeko, GHK enpresak egoki deritzen bitartekoak kontratatuz jardun ahal izango du, zerbitzua bermatzearren; eta esleipendunak bere gain hartu beharko ditu, oso-osorik, GHK-k kudeatzen dituen irtenbide horien kostu guztiak.

Kontratuaren indarraldian zehar aldaketaren bat gertatzen bada hasierako langile-zerrendan, horren arrazoa dena dela (erretiroa, heriotza, borondatezko baja, kaleratzea..., eta baita aldaketaren eragilea zerbitzuko beharrak direnean ere), enpresa esleipendunak idatziz eman beharko dio aurrez aditzera GHKri, eta honen baimena eskatu beharko du halaber idatziz, aldaketa hori gauzatzeko eta lanpostu hutsak edo sortzen diren lanpostu berriak bete ahal izateko. Subrogatutako langile kopurua ezingo du handitu, GHK-k aurrez eta idatziz emandako baimenik izan ezean.

Langile guztiak behar bezala identifikatuta egongo dira, zerbitzuen segurtasunera begira, eta identifikazio sistemarik eraginkorrena proposatu beharko da.

4.3 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

Enpresa esleipendunak bete egin beharko ditu legeek aurreikusten dituzten obligazio guztiak. Lege horiek, zehazki, honakoak dira: Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea, azaroaren 8koa (B.O.E., 269 zk., 1995eko azaroaren 10a), eta berau aldatzen duen 54/2003 Legea, abenduaren 12koa; 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duena (B.O.E., 27 zk., 1997ko urtarrilaren 31); eta lizitazioan zehar zein kontratua gauzatu bitartean indarrean dauden laneko segurtasunarekin eta osasunarekin lotutako bestelako guztiak.

Ondorioz, enpresa esleipendunaren obligazioa izango dira honakoak:

- Langileen segurtasuna eta osasuna bermatzea.
- Laneko Arriskuen Prebentzioa egitea, beharrezko neurri guztiak hartuz horretarako.
- Laneko arriskuak ebaluatzea.
- Prebentzio lanak planifikatzea, arriskuen ebaluazioaren emaitzetatik abiatuta.
- Laneko baliabideek langileen segurtasuna bermatzen dutela ziurtatzea.
- Langileei beharrezko babes baliabideak ematea, egin beharreko lanerako egokiak betiere, arriskuak behar beste saihesterik edo mugatzerik ez dagoenean.
- Langileei informazio egokia ematea lanean diren arriskuei, aplika daitezkeen babes neurri eta jardueri, eta hartzen diren larrialdiko neurriei buruz.
- Langileei kontsulta egitea eta laneko segurtasunari eta osasunari eragiten dieten kontu guztietan parte har dezaten uztea.
- Langile bakoitzak prebentzio arloan prestakuntza egokia jasotzen duela bermatzea.
- Informazioa ematea eta neurriak hartzea, langileak arrisku larri eta berehalako baten aurrean egon daitezkeenean.

- Langileen osasunaren aldiak mediku-zaintza bermatzea,
- Langile bat edo batzuk izendatzea, arrisku profesionalen prebentzioaz arduratzeko, prebentzio zerbitzu bat eratzeke edo zerbitzu hori erakunde espezializatu batekin hitzartzeko.
- GHKren prebentzio zerbitzuei eman beharko diote arlo honi dagokionez eskatzen zaien dokumentazio guztia, esleipendunak dituen obligazioak betetzen ote diren jarraipena egitearren.

4.4 KONTROL SISTEMAK

GHK-k zerbitzuaren ikuskaritza eta zaintza lanak egingo ditu, eta egoki deritzen berrikuspenak egin ahal izango ditu, edozein une eta tokitan. Egindako ikuskapenaren arabera, GHK-k agindu eta jarraibide zehatzak eman ahal izango ditu, eta horiek derrigorrean bete beharko ditu esleipendunak.

Lizitatzailerak dispositibo arinak aurreikusi beharko dituzte, egindako lanak justifikatzera begira eta kontratatutako zerbitzuaren gainean egoki ikusten dituen kontrolak behar bezala zertzearren GHK-k eskatzen dituen datu guztiak garaiz emateko; eta dispositibo horietarako proposatzen dituzten bitartekoak esleitu beharko dituzte, eskaintako emaitzak lortzearen.

Gainera, esleipendunak beharrezko bitartekoak eduki beharko ditu uneoro komunikazio sistema arin eta eraginkorra ziurtatzeko (telefonoa, mugikorra, posta elektronikoa, etab.).

Hilero, N hilaren lehen astean, esleipendunak hileko txosten oso eta zehatz bat aurkeztuko du, N-1 hilean garatutako jarduerari buruz; txosten horren gutxieneko osagaiak honakoak izango dira:

- Esleitutako sorburu bakoitzetik finkatutako zabortegiraino benetan egindako garraio lanak.
 - Data
 - Garraio kopurua
 - Transferentzia-estaziotiko irteera eta zabortegiko deskarga ordutegiak
 - Garraio bakoitzeko tonak
 - Gorabeherak
 - Oharrak: egindako lanen errealitatea hobeto isla dezakeen beste edozein datu
- Hileko erregai kontsumoa
- Baliabide mugikorren prebentziozko mantentzerako prozedurak:
 - Mantentze-lanak egin zaizkien ibilgailuak
 - Egindako lanak
 - IATEi buruzko informazioa
- Matxurengatik egindako konponketak
 - Ibilgailu matxuratua eta matxura mota
 - Ibilgailuak zerbitzutik kanpo eman duen denbora, eta hori ordezkatu duen ibilgailuaren matrikula eta datuak

Hernani, 2015 EKA. 11
Debabarrenako hiri hondakinak garraiatzeko zerbitzura, kontratua

Hileko txosten horrekin batera, zabortegi eta tratamendu plantetan egindako sarrera guztietako pisatze frogagiriak aurkeztuko dira, ezinbestekoak izango baitira fakturak onartzeko.

Edonola ere, zerbitzuari buruz GHK-k eskatzen dituen informazio eta datu guztiak emango ditu kontratistak, GHK-k eskatzen dituen formatuetan eta ezartzen duen maiztasunez.

Esleipendunak edozein unetan erakutsi beharko ditu GHK-k eskatzen dizkion dokumentu guztiak, eta bereziki gizarte aseguruei, laneko istripuei, aseguru polizei eta abarrei buruzkoak.

5 DEBABARRENAKO BIDERAKETA-SAREKO GARRAIO ZERBITZUA EMATEKO ETA ELGOIBARKO TRANSFERENTZIA-ESTAZIOA USTIATZEKO MEMORIA TEKNIKOA

ZERBITZUA EMATEKO ETA GARRAIOA KUDEATZEKO MEMORIA TEKNIKO bat aurkeztuko dute lizitatzailerak. Horretan, zehaztasunik handienez deskribatu beharko dute zerbitzua emateko modua, zerbitzuaren beharrak estaltzeko aurreikusten dituzten bitartekoen eta plangintzaren egokitasuna justifikatzearekin batera.

Memoria teknikoan aurkeztutako informazioa eta justifikazioak direnak direla, kontratistak bere gain hartzen du erabilgarri jartzeko proposatzen dituen bitartekoak aukeratzeko erantzukizuna, eta ezingo du argudiatu horiek desegokiak direnik bere obligazioak ez betetzea edo material entregetako atzerapenak justifikatzeko. Lehiaketaren esleipenak ez dakar GHKri aurkeztutako proposamen teknikoak baliozkotzea. Horrenbestez, kontratistaren erabateko erantzukizun eksklusiboa mantenduko da, GHKri kontratuko obligazioak goitik behera betetzea bermatzera begira eskaintako bitartekoak eta horiekin egiten den lanak egokiak izateari dagokionez.

MEMORIA horren edukiak ahalik eta garbien aurkeztuko dira, dokumentua egoki egituratuta eta datu tekniko, eskema, plan, xehetasuneko zerrenda eta abarretan xehetasun mailarik altuenez, hain zuzen behar bezala ebaluatu ahal izan dadin; eta, gainera, ondoko hauek jaso beharko ditu GUTXIENEZ:

- Aurreikusitako giza baliabideak, horien kategoria profesionalarekin eta eginkizunekin batera.
- Aurreikusitako bitarteko materialak, barnean harturik makineria, tresneria, kontsumigarriak, ordezkoen stocka etab.
- Bitartekoen definizio espezifikoa, berriak eta bigarren eskukoak adierazita; azken kasu honetan, horien antzinatea buruzko frogagiriak aurkeztu beharko dira.
- Ustekabeko, matxura eta antzekoetarako aurreikuspenak, ibilgailu eta makineriarako prebentziozko mantentze-plan batekin batera.
- Lanen dimentsionatze, plangintza eta koordinazioa, koherenteak, inolaz ere, zerbitzuko beharrak estaltzeko proposatutako bitarteko egokiekiko, eta barnean harturik aurreikusitako egutegia eta ordutegiak, kontrol, erregistro eta informazioa komunikatzeko sistemekin batera.

- Zerbitzuari eragin diezaioketen kanpo baldintzatzaileekiko aurreikuspenak (zabortegiko ordutegiak eta arauak, edo bestelako batzuk), zerbitzuko beharrekiko koherenteak.
- Eskaini nahi den hobekuntza ororen deskripzio argia, BABPn ezarritakoarekin bat.

Memoriak argia izan behar du, eta zerbitzuaren dimentsionatze eta koordinazio alderdi guztiak JUSTIFIKATU behar ditu, betiere zerbitzua behar bezala ematea ziurtatzearen.

Aipatutako baldintzatzaile guztiak kontuan harturik, dimentsionatzea analizatzeko lizitatzailleek ondokoak aurkeztu beharko dituzte, gutxienez, bere eskaintzetan:

- Garraio ekipoen deskripzioa, honakoak adierazita:
 - Hutseko pisuak (kg)
 - Motorra:
 - Marka eta modelo
 - Ezaugarri nagusiak. Indar momentua etab.
 - Erregai kontsumoa -ziurtagiria aurkeztu beharko da-
 - Gas emisioaren maila -ziurtagiria aurkeztu beharko da-
 - Zarata-emisioen maila -ziurtagiria aurkeztu beharko da-
 - Direktzio, ardatz, balazta, gurpil eta abarren motak eta ezaugarriak.
- Kasu bakoitzerako garraio sistema, ibilgailuak eta langileak.
- Hasiera batean kasu bakoitzerako proposatu eta aurreikusitako deuseztatze eta tratamendu zentroetaraino ibilbideen deskripzioa, distantziak eta denborak adierazita.
- Sistema bakoitzeko karga eta deskarga lanetan transferentzia-estazioetan, tratamendu zentro edo guneetan eta deuseztatze zentro edo gune bakoitzean beharko den denbora.
- Kasu bakoitzerako eguneko garraio edo bidaia kopurua.
- Zerbitzua ondoen deskribatzeko beharrezko datu guztiak.

Lizitatzailleek, bere eskaintzetan, emakidan aurreikusten diren langileen antolaketa eta kudeaketa zehaztuko dute, hainbat alderdi jasoz horretan, hala nola:

- Egindako azterketen emaitzen arabera kontratu honen xede diren lanak egiteko behar diren langileak, honakoak adierazita:
 - Kualifikazioa
 - Esleitutako lana
- Postu hutsen kasurako antolaketa-prozedura, postuak huts geratze horiek ustekabekoak direnerako ere bai, horrela ziurtatzearen, batetik, horiek berehala estaltzea eta, bestetik, ordezeko langileak egoki ezagutzen dituela egin behar dituen lanak.
- Langileei aplikatzeko proposatzen duten hitzarmen kolektiboa.

Debabarrenako hiri hondakinak garraiatzeko zerbitzurako kontratua

2015 EKA. 11



Idazkaririk,

Langileen kudeaketari buruzko beste alderdi batzuk ere sartuko dira memorian, esaterako laneko segurtasun eta higienari, langileen prestakuntzari, enpleguko egonkortasunari eta abarri buruzkoak.

Lizitatzailleak aurreikusten badu lanetako batzuk hirugarren batzuekin hitzartu beharra, berariaz jaasota utziko du, lankidetza horren irismena adierazita; eta azpikontratisten konpromiso gutunak ere aurkeztuko ditu, horiek onartu beharko baitute lanak Agiri honetan zehazten diren modu eta baldintzetan egitea. Beste edozein azpikontrataziotarako edo azpikontratistak ordezkatzeko, GHKren berariazko baimena beharko da. Ezingo dira gainditu HAKLTBren 227. artikuluan finkatutako mugak.

Lizitatzailleak bere eskaintzan definituko du Agirian azpikontratatzeara proposatzen duen enpresetako lantaldeak osatzen dituen pertsonala, zehazki laguntza hau ematera atxikia, duen esperientzia, gaitasun teknikoa eta proiektu honetarako dedikazioa azalduz.